

EAEANKo LAN-ARLOKO SALAREN PRESIDENTEAREN PRENTSA OHARRA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKL) bateraezintzat jo du nire parte-hartzea Bake Prozesua indartzeko Foro Sozialean (Batzordean); horren aurrean honako hau adierazi nahi dut:

1.- Pasa den martxoaren 13an jakinarazi zidaten BJKNko Batzorde Iraunkorraren erabakia, non ebazten baita nik egin nuen eskaera, hau da, nire kargu judiziala Batzorde horretako kidea izatearenekin bateratzea onartzekoa. Erabaki honetan bateraezintzat jotzen da zerbitzu aktiboan magistratua izatea aipatutako Batzordeko kide izatearekin, hain zuzen ere ulertzen delako ezen parte-hartze horrek, funtsean: a) zuzenean eragiten diela Botere Judizialaren kide gisa jarduten duenaren independentzia, inpartzialtasun eta neutralitateari; b) aholkularitza juridiko debekatua dela; c) ondorio gisa ekar dezakeela agintari edo funtzionarioak zoriontzea edota kritikatzeko euren karguaren jardunean egindakoengatik, eta hori debekatuta daukate Botere Judizialaren kideek.

2.- Erabaki horri begirunez egiten diot men noski, nahiz eta haren izatezko eta zuzenbidezko kontsiderazioekin bat ez natorren. Uste dut BJKNak egitateak balioesten dituela eta aplikagarritzat jotzen dituen arauak interpretatzen dituela, baina ez nik bidezkotzat jotzen dudan modu berean.

3.- Ondorioz, ez dut Batzordean parterik hartuko, baina horrek ez du esan nahi inolako aukeraketarik egiten dudarik jarduera horren eta magistratu gisa dudak karguaren artean. Magistratu gisa jarduten jarraituko dut, izan ere, legearekin eta erregelamenduarekin bat, aukera hori kasu bakar batean da bidezkoa, hau da, bateraezintzat jotzen den zereginen jardutearen ondoren izendapen judizial bat etortzea. Eta hori, nabaria denez, ez da nire kasua.

4.- Bakea eta Elkarbizitza Euskal Herriko gizarte osoaren erantzukizuna dira, eta ni gizarte horren parte naiz, arlo guztietan. Balio hauekiko ene konpromisoak, alegia, Giza Eskubideen berme osoarekiko eta egiaren, justiziaren eta biktima guztientzako ordainarekiko dudak konpromisoak ahalbidetu egingo naute, inolako zalantzarik gabe, nire ahalein neurrian Euskal Herriaren etorkizuneko elkarbizitzaren erronka handian parte hartzeko eta laguntza emateko. Horretarako hiritarra naizen heinean ezin indargabetu daitezkeen ene eskubideak egikaritzeko ditut, eta edozein kasutan funtzio judiziala eta bere araubide juridikoa arautzen dituen indarreko legalitatea gordeko dut.

2014ko MARTXOAREN 20.

GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR
EAEANKo Lan-arloko Salako presidentea

